

Sin./Fdo.: ISABEL SARRIONANDIA-IBARRA FERNANDEZ - 2025-06-23
ENPRESAK SUSTATZEKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE PROMOCIÓN EMPRESARIAL

Sin./Fdo.: JOSEBA MIRENA MARIEZKURRENA CUESTA - 2025-06-24
EKINTZAILETZA,TALENTUA ETA ENPR.LEHIKORT.BUL.ZUZ.NAG.-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIR.GEN.EMPREDIMIENTO,TALENTO Y COMPETITIV.EMPRESARIAL

Sin./Fdo.: AINARA BASURKO URKIRI - 2025-06-25
EKONOMIA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA



FORU DEKRETUA, Bizkaiko Ahaldu Nagusiarena, zeinaren bidez zuzeneko dirulaguntza bat ematen baitzaio, Bilbao International Art & Fashion entitateari "Modaren Michelin izar gisa Bizkaian sortzen ari diren diseinatzaileak bizkortzeko estrategia".

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren helburu nagusietako bat dagoeneko hasita dagoen eraldaketa-prozesuan aurrera egitea da, Bizkaian pertsonetan, konfiantzan, konpromisoan, parte-hartzean eta enpresa-iraunkortasunean oinarritutako enpresa-estilo berri bat sortzeko. Ekintzailetza eta talentua, hazkunderako bi eragile garrantzitsu dira, funtsezkoak kalitatezko enplegua sortzeko eta garapen ekonomiko eta soziala ahalbidetuko duen enpresa-sare dinamiko, sortzaile, berritzaile eta iraunkorra lortzeko. Ezinbestekoa da enpresa jasangarrien aldeko apustua, pertsonetan, konfiantzan eta konpromisoan oinarritutakoa eta partaidetza sustatzen duena, soldata lehiakorrek eta lan-baldintza malguekin, talentua atxikitzeko, erakartzeko eta kudeatzeko, pertsonen beren potentzial guztia garatu ahal izan dezaten Bizkaiko enpresek eskatutako profilekin alienazioan..

DECRETO FORAL de la Diputada General de Bizkaia por el que se concede una subvención directa a Bilbao International Art & Fashion para promover el desarrollo del proyecto "Estrategia para acelerar diseñadores emergentes de Bizkaia como estrellas Michelin de la moda".

El Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia tiene como uno de sus principales objetivos avanzar en el proceso de transformación ya iniciado para generar en Bizkaia un nuevo estilo de empresa basado en las personas, la confianza, el compromiso, la participación y la sostenibilidad empresarial. El emprendimiento y el talento son dos importantes motores del crecimiento, fundamentales para la generación de empleo de calidad y para lograr un tejido empresarial dinámico, creativo, innovador y sostenible que permita el desarrollo económico y social. La apuesta por empresas sostenibles, basadas en las personas, la confianza, el compromiso y que promuevan la participación, con salarios competitivos y condiciones de trabajo flexibles resulta imprescindible para retener, atraer y gestionar el talento, de manera que las personas puedan desarrollar todo su potencial en alienación con los perfiles demandados por las empresas de Bizkaia.





Berrikuntzak, digitalizazioak eta aurrerapen teknologikoei enpresen bilakaera markatzen duten merkatu globalizatu batean, pertsona prestatuak, berritzaileak eta sortzaileak izatea ezinbesteko faktorea da enpresa-sarea sortzeko, mantentzeko eta jasangarria izateko. Eta, enpresa-sare lehiakor eta dinamikoa dagoen neurrian, talentua erakartzeko eta atxikitzeko hasierako baldintzak emango dira. Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak sormenarekin eta diseinuarekin lotutako ekimenak sustatzen eta babesten ditu, Bizkaian sormen-enpresen sektorea sendotzeko helburuarekin.

En un mercado globalizado en el que la innovación, la digitalización y los avances tecnológicos marcan el devenir de las empresas, contar con personas formadas, innovadoras y creativas es un factor imprescindible para la generación, mantenimiento y sostenibilidad del tejido empresarial. Y, en la medida en la que se cuente con un tejido empresarial competitivo y dinámico, se darán las condiciones de partida para la atracción y retención del talento. Por esta razón, la Diputación Foral de Bizkaia promueve y apoya iniciativas relacionadas con la creatividad y el diseño con el objetivo de consolidar el sector de las empresas creativas en Bizkaia.

Bilbao International Art & Fashion, BIAAF, irabazi-asmerik gabeko erakunde bat da, 2008tik mundu osoko modaren diseinuaren promesa gazteak merkaturatzen dituen, erreferentziatzeko sektore batean lekua hartu nahi duten profil oso sortzaile eta berritzaileak. BIAAF etengabe dago harremanetan sortzen ari diren diseinatzaileekin, moda-eskolekin eta mundu osoko industriako adituekin, eta hainbat jarduera garatzen ditu; besteak beste, moda diseinatzeke bi urteko lehiaketa, foroak, hitzaldiak eta prestakuntza-jarduerak ospe handiko erakundeetan. Gaur egun, BIAAFek ekosistema paregabea eraikitzea lortu du, talentu sortzaile eta berritzailea erakarri, garatu eta profesionalizatzeko gai izango dena.

Bilbao International Art & Fashion, BIAAF, es una organización sin ánimo de lucro dedicada desde 2008 al lanzamiento de jóvenes promesas del diseño de la moda de todo el mundo, perfiles altamente creativos e innovadores que buscan hacerse hueco en un sector de referencia. BIAAF está en contacto permanente con diseñadores emergentes, escuelas de moda y personas expertas de la industria de todo el mundo, desarrollando numerosas actividades entre las que destacan el concurso bianual de diseño de moda, foros, conferencias y actividades de formación en instituciones de reconocido prestigio. A día de hoy, BIAAF ha conseguido construir un ecosistema único, capaz de atraer, desarrollar y profesionalizar talento creativo e innovador.

Hauek dira Bilbao International Art & Fashionen helburu nagusiak:

1. Tokiko talentua aurkitzen jarraitzea eta nazioarteko talentua inportatzea.
2. Lurraldeko talentu sortzaile gazteen banku bat sendotzea bultzatzea.
3. Diseinuaren erabilera erraztea, Bizkaian eragin positiboa eta iraunkorra izango duen garapen sozioekonomikoa lortzeko bide gisa.

Las principales metas de Bilbao International Art & Fashion son:

- 1º Seguir descubriendo talento local e importar talento internacional.
- 2º Impulsar la consolidación de un banco de jóvenes talentos creativos del Territorio.
- 3º Facilitar el uso del diseño como vía para lograr un desarrollo socioeconómico que genere un impacto positivo y sostenible en Bizkaia.





4. Bilbo/Bizkaia moda merkaturatzeko eta diseinu emergenterako plataforma gisa sendotzea.

5. Bilboko eta Bizkaiko sormen-industrien sektorean enpresa-proiektu berritzaileen bultzatzaile izatea.

6. Tokiko eta nazioarteko diseinatzaile berriei negozio-aukerak irekitzea eta garapen profesionala erraztea.

4º Consolidar Bilbao/Bizkaia como plataforma de lanzamiento de moda y diseño emergente.

5º Ser tractor de proyectos empresariales innovadores en el sector de las industrias creativas en Bilbao y Bizkaia.

6º Abrir oportunidades de negocio y facilitar el desarrollo profesional a diseñadores emergentes locales e internacionales.

Helburu horiek lortzeko, BIAAFek honako ibilbide-orri hau lantzen du:

Para lograr estos objetivos, BIAAF trabaja con una hoja de ruta consistente en:

1. Proiektuaren, talentu gazteen eta Bilbo eta Bizkaiko gazteen nazioarteko proiektzioa erreferentziazko lurralde gisa, sortzen ari den diseinu berritzaile eta iraunkorrari dagokionez.

1º Proyección internacional del proyecto, de los jóvenes talentos y de Bilbao y Bizkaia como territorio de referencia en lo que a diseño emergente, innovador y sostenible se refiere.

2. Sinergiak indartzea eta zabaltzea, proiektua eskalatzen jarraitzeko, sektorearentzat lehia-abantaila iraunkorrek sortzeko eta euskal modaren diseinatzaile eta enpresa berrien nazioartekotzea eta lehiakortasun globala hobetzeko.

2º Refuerzo y ampliación de sinergias para seguir escalando el proyecto, generar ventajas competitivas duraderas para el sector y mejorar la internacionalización y la competitividad global de las y los diseñadores y empresas emergentes de moda vasca.

3. Lan-merkaturako sarbidea eta ekintzailetzarako laguntza, Bilboko eta Bizkaiko modaren sektorearen jarraitutasuna, profesionalizazioa, hazkundea, oparotasuna eta izaera berritzailea bermatzeko, betiere ikuspegi sozialetik eta lurraldeari lotuta.

3º Acceso al mercado laboral y apoyo al emprendimiento para garantizar la continuidad, profesionalización, crecimiento, prosperidad y carácter innovador del sector moda en Bilbao/Bizkaia, siempre desde una perspectiva social y vinculada al Territorio.

4. I+G+B: Talentu gazteen garapen profesionala erraztuko duten material jasagarri berriak, negozio-eredu berritzaileak eta prestakuntza-planak garatzeko ikerketa-proiektuetan parte hartzea.

4º I+D+I: Participación en proyectos de investigación para el desarrollo de nuevos materiales sostenibles, modelos de negocio innovadores y planes formativos que faciliten el desarrollo profesional de los jóvenes talentos.





"Modaren Michelin izar gisa Bizkaian sortzen ari diren diseinatzaileak bizkortzeko estrategia" proiektuaren helburuak honako hauek dira:

1. Hautatutako diseinatzaile gazteek sortutako luxu berriaren segmentuko bildumak ekoiztea.

Bilduma horiek kalitate- eta diseinu-osagai handiak dituzte, edizio mugatuak, nortasun propioa, gure sustrai industrial eta kulturei lotuak, bereziak, bakarrak eta arimadunak. 0 kilometroko ekoizpenak dira, abangoardiako ingurune teknologiko eta iraunkor batean sortuak.

2. Marketin- eta komunikazio-ekintzak indartzea eta finkatzea, nazioarteko salmentak areagotzeko eta egonkortzeko::

a) BIAAF komunitatea sortzeko sareak kudeatzea, edukien kalitateari, audientzien optimizazioari eta kontuen arteko lankidetzari eta interakzioei lehentasuna emanez.

b) META B2C publizitatea areagotzea META BUSINESSen, salmentarako nitxo eta formatu eraginkorrenak aurkitzeko, estrategia adimen artifizioan eta META algoritmoaren ikaskuntzan oinarritutako kanpaina automatizatuagoetan zentratuz.

c) AEBetako eta Europa iparraldeko txikizkako dendak eta marketplazeak sartzea B2B estrategian, sustapen-ekintzak, eskaintzak eta LEAD kanpainak eginez META BUSINESSen, markak ezagutarazteko.

d) BIAAFen webgunea optimizatzen jarraitzea, haren malgutasuna, kudeatzeko erraztasuna eta erabilgarritasuna areagotzeko, webgunera trafikoa handiagotzeko, ikusle gehiago eta nazioarteko irismen handiagotzeko.

Los objetivos del proyecto "Estrategia para acelerar diseñadores emergentes de Bizkaia como estrellas Michelin de la moda" son:

1º Producción de colecciones pertenecientes al segmento del nuevo lujo creadas por diseñadores jóvenes seleccionados.

Estas colecciones se definen por su alto componente de calidad y el diseño, con ediciones limitadas e identidad propia, vinculadas a nuestras raíces industriales y culturales, especiales, únicas y con alma. Son producciones kilómetro 0, creadas en un entorno tecnológico y sostenible de vanguardia.

2º Reforzar y consolidar acciones de marketing y comunicación para incrementar y estabilizar las ventas internacionales:

a) Gestión de las redes para crear la comunidad BIAAF priorizando la calidad de los contenidos, la optimización de las audiencias y las colaboraciones e interacciones entre cuentas.

b) Incrementar la publicidad META B2C en META BUSINESS con el fin de descubrir los nichos y formatos más eficaces para la venta, centrando la estrategia en campañas más automatizadas basadas en inteligencia artificial y en el aprendizaje del algoritmo de META.

c) Incorporar tiendas minoristas y marketplaces de EEUU y norte de Europa en la estrategia B2B, realizando acciones de promoción, ofertas, campañas LEAD en META BUSINESS para dar a conocer las marcas.

d) Continuar optimizando la web de BIAAF para incrementar su flexibilidad, facilidad de gestión y usabilidad para lograr mayor tráfico a la web, mayores audiencias y mayor alcance internacional.





3. Metaversoa markarako muga berri gisa aztertzea, espazio birtual horiek baliatuta esperientzia murgiltzaileak eta eksklusiboak sortzeko webgunean eta sareetan. BIAAFen ustez, metaversoa, errealitate areagotuan (AR) eta errealitate birtualean (VR) oinarritua, aukera paregabea da bere marketin-estrategia iraultzeko, bereziki diseinatzailerien, iraunkortasunaren eta luxu berriaren balioen inguruan, bi teknologia horiek, AR eta VR, metaversoan bat egiten baitute, non arlo fisikoa eta digitala uztartzen diren, komunitatearen interakzio sakonagoa eta esanguratsuagoa ahalbidetuz. Azken batean, BIAAFek metaversoa tresna oso ahaltsu gisa ulertzen du bere marketin-estrategia bultzatzeko, bere entzuleekin hobeto konektatzeko eta moda digitalaren abangoardian kokatzeko.

Proiektua gauzatzean, honako ekintza hauek egingo dira:

1. Marketin-ekintzak, besteak beste:

a) laborategiko markekiko ezagutza eta kidetasuna sendotzeko ekintzak, hala nola influencer-ekiko lankidetzak, aldizkariak, etab.,

b) online dendako eta salmentetako trafikoa kualifikatua handitzeko ekintzak, hala nola FACEBOOK ADSko publizitatea, trafikoa kualifikatua eta "retargeting" a erakartzeko helburuekin,

c) laborategiko marken presentzia handitzeko ekintzak B2C eta B2B marketplacerean.

2. Kanpainerako, saretarako eta ecommercerako ikus-entzunezkoak ekoizteko ekintzak.

3. Laginak ekoizteko ekintzak.

3º Exploración del metaverso como una nueva frontera para la marca, aprovechando estos espacios virtuales para crear experiencias inmersivas y exclusivas en la web y en redes. BIAAF considera que el metaverso, basado en la realidad aumentada (AR) y la realidad virtual (VR), es una oportunidad única para revolucionar su estrategia de marketing, especialmente en torno a sus valores de diseñadores emergentes, sostenibilidad y nuevo lujo ya que estas dos tecnologías, AR y VR, convergen en el metaverso, donde se fusionan lo físico y lo digital permitiendo una interacción más profunda y significativa de su comunidad. En definitiva, BIAAF concibe el metaverso como una herramienta muy poderosa para impulsar su estrategia de marketing, conectar mejor con su audiencia y posicionarse a la vanguardia de la moda digital.

En ejecución del proyecto se van a realizar las siguientes acciones:

1º Acciones de marketing, entre otras:

a) acciones para afianzar el conocimiento y afinidad con las marcas del laboratorio tales como la colaboración con influencers, revistas, etc.,

b) acciones para aumentar el tráfico cualificado de la tienda on line y ventas, como la publicidad en FACEBOOK ADS con objetivos de captación de tráfico cualificado y "retargeting",

c) acciones para incrementar la presencia de las marcas del laboratorio en marketplacers B2C y B2B.

2º Acciones de producción de audiovisuales para las campañas, redes y ecommerce.

3º Acciones para la producción de muestrarios.





Gaur egun, esan daiteke Bilbao International Art & Fashion enpresa sortzaileen traktorea dela, eta aukera eman diela gure lurraldean aukera profesionalak ireki eta finkatzeko, bai diseinatzaileei, bai modaren industriaren balio-kateko eragileei. Horri esker, etengabe, aktiboki eta modu esanguratsuan lagundu dio Bilbon/Bizkaian potentzial handiena duten diseinatzaile gorakorrek, tokikoek zein nazioartekoek, sortutako modaren diseinu eta ekoizpenari, eta bere nazioarteko lehiaketari eta egindako gainerako jarduerari esker, deskubritu eta erakarri egin du.

Beraz, bat datoz Bilbao International Art & Fashion-en helburuak eta interesak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailarenak, Bizkaiko Foru Aldundiak bezala kultura- eta sormen-industria sustatzen duten ekimenak garatzeko, Bizkaiarentzat enplegua, aberastasuna eta nazioarteko proiektzioa sortzeko duen gaitasunari esker. Horrela, kulturaren eta modaren panoramaren erreferente gisa eratzen ari da, eta horrek, tokiko sormen-sarea indartzeaz gain, inbertsioak erakartzen ditu Lurraltera. Hori dela eta, Ekonomia Sustatzeko Departamentuko foru diputatuaren 2025eko ekainaren 4ko 4419/2025 Foru Aginduaren bidez, Bilbao International Art & Fashioni "Modaren Michelin izar gisa Bizkaian sortzen ari diren diseinatzaileak bizkortzeko estrategia" proiekturako zuzeneko dirulaguntza bat emateko prozedura ofizioz hasia erabaki zen, bere ekimenez 2025 eta 2026an.

2025eko ekainaren 9ean, Bilbao International Art & Fashionek dirulaguntza eskaera bat aurkeztu dio Bizkaiko Foru Aldundiari, "Modaren Michelin izar gisa Bizkaian sortzen ari diren diseinatzaileak bizkortzeko estrategia" proiektua egiteko. Eskabidearekin batera, egin beharreko jardueraren deskribapena, helburuak eta epeak erantsi dira. Proiektu honetan aurreikusitako jarduerak

A día de hoy, se puede afirmar que Bilbao International Art & Fashion es un tractor de empresas creativas que ha permitido abrir y consolidar oportunidades profesionales en nuestro territorio tanto a diseñadores como a agentes de la cadena de valor de la industria de la moda contribuyendo de forma constante, activa y significativa al diseño y producción de moda creada en Bilbao/Bizkaia por las y los diseñadores emergentes con mayor potencial, tanto locales como internacionales, que descubre y atrae gracias a su concurso internacional y al resto de actividades realizadas.

Existe, por tanto, una coincidencia entre los objetivos e intereses de Bilbao International Art & Fashion y los del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia en desarrollar iniciativas que, como ésta, promueven la industria cultural y creativa gracias a su capacidad de generación de empleo, riqueza y proyección internacional para Bizkaia que, de esta manera, se vaya configurando como un referente del panorama cultural y de la moda lo que, además de fortalecer el tejido creativo local, atrae inversiones al Territorio. Por este motivo, mediante la Orden Foral 4419/2025, de 4 de junio de 2025 de la diputada foral del Departamento de Promoción Económica, se acordó iniciar de oficio, por propia iniciativa, el procedimiento para la concesión de una subvención directa a Bilbao International Art & Fashion, para el proyecto "Estrategia para acelerar diseñadores emergentes de Bizkaia como estrellas Michelin de la moda" durante 2025 y 2026.

El día 9 de junio de 2025, Bilbao International Art & Fashion ha presentado una solicitud de subvención a la Diputación Foral de Bizkaia para realizar el proyecto "Estrategia para acelerar diseñadores emergentes de Bizkaia como estrellas Michelin de la moda". Se adjunta la solicitud que incorpora la descripción de la actividad a realizar, sus objetivos y sus plazos. Las actuaciones previstas en este proyecto se





2025eko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean garatuko dira. Jarduketaren guztizko kostu zenbatetsia 150.000,00 eurokoa da, eta Bizkaiko Foru Aldundiari zenbateko horretako dirulaguntza eskatuko zaio 2025-2026 urteetarako.

Bizkaiko Foru Aldundia lanean ari da bizkaitar guztiek ahalmen guztia gara dezaten, lurraldean aberastasuna eta ongizatea sortzen laguntzeko; horregatik, ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko helburuarekin egitea, eta horretarako urte asko daramatza berdintasunaren arloan lanean.

Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arau Orokorraren 7. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera, foru-dirulaguntza publikoek, oro har, genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala jaso behar dituzte, bai eta berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeke neurriak ere, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa betetze aldera.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorraren aldeko xedapenak ezartzen ditu. Ondorioz, dekretu honen esparruan garatzen diren jarduketa guztiek genero-ikuspegia izan beharko dute kontuan.

Bestalde, Bilbao International Art & Fashion - BIAAFek bere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana egin du, eta haren lehentasun estrategikoak, proiektuak eta jarduerak aztertzen ditu, bai eta horien guztien gizarte-inpaktua ere, Garapen Iraunkorrari eta Giza Eskubideei egiten zaien ekarpena neurtzeko.

desarrollarán desde el 1 de enero de 2025 al 31 de diciembre de 2026 siendo el coste total estimado de la actuación de 150.000,00 euros solicitando a la Diputación Foral de Bizkaia una subvención de ese importe para los años 2025-2026.

La Diputación Foral de Bizkaia, que trabaja para que todas las personas de Bizkaia puedan desarrollar todo su potencial para contribuir a la creación de riqueza y bienestar del Territorio, considera imprescindible hacerlo con el objetivo de lograr la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando en materia de igualdad.

De acuerdo con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 7 de la Norma Foral 5/2005, general de subvenciones, las subvenciones públicas forales, con carácter general, deben incorporar la perspectiva de género y la perspectiva interseccional, así como incorporar medidas para promover la igualdad y eliminar desigualdades entre mujeres y hombres con el fin de dar cumplimiento al principio de igualdad de mujeres y hombres.

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres establece disposiciones en favor de una efectiva igualdad de mujeres y hombres. En consecuencia, todas las actuaciones que se desarrollen en el marco de este decreto deberán tener en cuenta la perspectiva de género,

Por su parte, Bilbao International Art & Fashion - BIAAF ha elaborado su propio Plan para la igualdad de mujeres y hombres y ha analizado sus prioridades estratégicas, sus diferentes proyectos y actividades, así como el impacto social de todos ellos al objeto de medir la contribución al Desarrollo Sostenible y los Derechos Humanos.





Beste aldetik, Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoak, 01. helburu estrategikoaren barruan (Ekintzailtza aurreratua Bizkaiko enpresasare berriaren eragile giza), 101.01 helburu espezifikoaren ("Bizkaian ekintzailtza sustatzea eta enpresak sortu eta finkatzeko laguntza ematea"), 01.01.06 ekintza ("Ekintzailtzari eta enpresa jasangarritasunari laguntzea") aurreikusten du.

Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 c) artikulua aurreikusten du, salbuespen gisa, zuzenean eman ahal izango direla interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten beste dirulaguntza batzuk, edo deialdi publikoa zailtzen duten behar bezala justifikatutako beste batzuk.

Foru Dekretu honekin batera doa 34/2010 Foru Dekretuaren 52.3 artikuluan aurreikusitako Enpresa Sustatzeko Zerbitzuaren txostena, dirulaguntzaren izaera berezia, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiak edo Bilbao International Art & Fashion entitateari "Modaren Michelin izar gisa Bizkaian sortzen ari diren diseinatzaileak bizkortzeko estrategia" proiektua garatzeko zuzeneko dirulaguntza emateko deialdia egitea zaila dela justifikatzen duten beste arrazoi batzuk justifikatzen dituen.

Foru-dekretu honen xedea da zuzeneko dirulaguntza Euskal Herriko Zinema Eskolaren alde bideratzea (zuzkiduraren zenbatekoa 100.000,00 euro izango da 2025eko ekitaldian, eta 125.000,00 euro 2026ko ekitaldian), eta entitate onuradunak bere gain hartu behar dituen baldintzak eta konpromisoak ezartzea.

Por otro lado, el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 del Departamento de Promoción Económica prevé dentro del objetivo estratégico 01 "Emprendimiento avanzado como motor del nuevo tejido empresarial de Bizkaia", en el objetivo específico 01.01 "Impulsar el emprendimiento y apoyar la creación y consolidación de empresas en Bizkaia", la acción 01.01.06 "Apoyo al emprendimiento y sostenibilidad empresarial".

El artículo 20.2 c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, prevé la posibilidad de conceder de forma directa, con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

Acompaña a este Decreto Foral Informe del Servicio de Promoción Empresarial previsto del artículo 52.3 del Decreto Foral 34/2010, justificativo del carácter singular de la subvención, de las razones que acreditan el interés público, social, económico o humanitario, u otras que justifiquen la dificultad de su convocatoria en relación a la subvención directa a Bilbao International Art & Fashion para el desarrollo del proyecto "Estrategia para acelerar diseñadores emergentes de Bizkaia como estrellas Michelin de la moda".

La finalidad de este Decreto Foral es canalizar la subvención directa a favor de Bilbao International Art & Fashion siendo el importe de la dotación de 75.000,00 euros en el ejercicio 2025 y 75.000,00 euros en el ejercicio 2026, así como establecer las condiciones y compromisos que asume la entidad beneficiaria.





Zuzeneko dirulaguntza hau irabazi-asmorik gabeko elkarte bati ematen zaio, eta helburu hauek ditu, besteak beste: moda diseinatzaile gazteak sustatzea, moda, kultura eta artea herritarrengana hurbiltzea, eta sormenaren arloko politika berritzaileak garatzea. prestakuntza-dinamiken, moda, artea eta kultura sustatzeko eta zabaltzeko jardueren, erakunde publikoekiko lankidetzaren eta nazioarteko komunikazio-sareen garapenaren bidez. Beraz, bere jarduera nagusia ezin da ondasunen eta/edo zerbitzuen prestaziotzat hartu, eta ez die eragiten estatu kideen arteko merkataritza-trukeei. Beraz, ezin da estatu-laguntzat hartu, Batzordeak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (2016/C262/01) 107. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera estatu-laguntzaren kontzeptuari buruz egindako Komunikazioak ezartzen duenaren arabera.

Foru Dekretu honen prestaketan, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

Ebazpen honen xede den gaiaren gaineko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Hautaketari, Antolamenduari, Erregimenari eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1 d) artikulua modu koordinatuan irakurriz gero ondoriozta daitekeenez. Artikulu horretan ezartzen da aldundien berezko eskumena dela garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzaz, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenen arabera.

Esta subvención directa se concede a una asociación sin ánimo de lucro que tiene por finalidad, entre otras, la promoción de diseñadores de moda jóvenes, el acercamiento de la moda, la cultura y el arte a la ciudadanía, y el desarrollo de políticas innovadoras en materia creativa, mediante dinámicas formativas, actividades de promoción y difusión de la moda, el arte y la cultura, la cooperación con instituciones públicas y el desarrollo de redes de comunicación internacional por lo que su actividad principal no puede considerarse de prestación de bienes y/o servicios ni afecta a los intercambios comerciales entre Estados miembros, por lo que no puede considerarse una ayuda de Estado, en los términos que establece la Comunicación de la Comisión relativa al concepto de ayuda estatal conforme a lo dispuesto en el artículo 107, apartado 1, del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (2016/C262/01)

En la elaboración de este Decreto Foral se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

La competencia sobre la materia objeto de esta resolución corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de la lectura coordinada del artículo 17.2º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 36.1 d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases de Régimen Local donde se establece que es competencia propia de las Diputaciones la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social, de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.





Ekonomia Sustatzeko Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 61/2024 Foru Dekretuak, 1. artikuluan, sail honi esleitzen dio, beste jardun-arlo batzuen artean, enpresa-sustapenarekin, enpresa berrien sorrerarekin eta kultura ekintzailea sustatzearekin, enpresen dibertsifikazioarekin eta gorabidean dauden eta hazten ari diren sektoreak sendotzearekin eta talentua eta ezagutza erakarri eta sustatzearekin zerikusia duten jarduera guztiak bultzatzea eta garatzea.

2025eko aurrekontu-ekitaldiari dagozkion Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan, zuzeneko dirulaguntza hau emateak dakarren gastuari aurre egiteko beharrezkoa den diru-izendapena dago, zehazki 0803/426106/45100 aurrekontu-programan, 2022/0077 aurrekontu-proiektuan, "Ekintzailatza sortzailea" izenekoan.

Horrenbestez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 26.2. artikuluan, 20.2. artikuluari lotuta, xedatutakoa dela bidez, egokitzen jotzen da zuzeneko emakidaren bidez laguntza berezi bat ematea.

Aurrekoarekin bat, honako hauek osatuko dute zuzeneko diru-laguntza honi aplikatu behar zaion araubide juridikoa: Dekretu honetan jasotako xedapenek, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2008 Legean jasotako manuek, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, eta aurreko testu horiek guztiak garatzen dituzten arauzko xedapenek.

El Decreto Foral 61/2024, de la Diputación Foral de Bizkaia, de 6 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Promoción Económica, en cuyo artículo 1 atribuye a este departamento, entre otras áreas de actuación, la del impulso y desarrollo de todas las actividades que tengan relación con la promoción empresarial, la creación de nuevas empresas y la promoción de la cultura emprendedora, la diversificación empresarial y la consolidación de sectores emergentes y en crecimiento y la atracción y promoción del talento y el conocimiento.

En los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia correspondientes al ejercicio presupuestario 2025, existe la necesaria consignación para hacer frente al gasto que representa la concesión de la presente subvención directa, concretamente en el programa presupuestario 0803/426106/45100 proyecto presupuestario 2022/0077 "Emprendimiento creativo".

Por todo ello, en virtud de lo dispuesto por el artículo 26.2 en relación al 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, procede la concesión de una ayuda singular mediante el procedimiento de concesión directa.

Consecuentemente con lo anterior, el régimen jurídico aplicable a la presente subvención directa estará constituido, además de por las disposiciones recogidas en el presente Decreto, por las prescripciones contenidas en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, que regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y por las disposiciones de carácter reglamentario que desarrollan los textos anteriormente citados.





Bestalde, abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuak, Aurrekontuen Erregelamendu Orokorrari buruzkoak, Bizkaiko Foru Aldundiko organoek dirulaguntzak edo laguntzak emateko dituzten eskumenen mugak zehazten dituenak, bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, diputatu nagusiari dagokio 320.000,00 eurotik beherako dirulaguntzak ebaztea. Muga hori bat dator Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoarekin.

Por otro lado, de acuerdo con lo establecido en la Disposición Adicional Segunda del Decreto Foral nº 169/2014, de 16 de diciembre, de Reglamento General Presupuestario, por la que se determinan los límites competenciales, por razón de la cuantía, de los órganos de la Diputación Foral de Bizkaia para concesión de subvenciones o ayudas, corresponde a la Diputada General la resolución de aquellas subvenciones que no superen los 320.000,00 euros. Dicho límite está en consonancia con lo dispuesto en el artículo 12 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, que aprueba el Reglamento de Subvenciones.

Horregatik guztiagatik, Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 9.2. artikuluan eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Foru Arautegiaren 12. artikuluan ezarritakoa dela bide, ondoko proposamen hau jarri da Bizkaiko Foru Aldundiaren Ahaldun Nagusiaren onepenen menpe

Por todo ello, en virtud de lo establecido en el artículo 9.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el artículo 12 del Reglamento Foral de Subvenciones aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, se somete a la aprobación de la Diputada General de la Diputación Foral de Bizkaia la siguiente propuesta de

DEKRETUA

Lehena.- Foru Dekretuaren xedea

1. Dekretu honen xedea da 150.000,00 euroko zuzeneko dirulaguntza ematea Bilbao International Art & Fashion erakundeari (IFZ: G95791679), "Modaren Michelin izar gisa Bizkaian sortzen ari diren diseinatzaileak bizkortzeko estrategia" proiektua 2025-2026an gauzatzeko, eta, horretarako, hura emateko baldintzak eta konpromisoak ezartzea.

DECRETO

Primero.- Objeto del Decreto Foral

1. Este Decreto tiene por objeto conceder a Bilbao International Art & Fashion, con NIF G95791679, una subvención directa por importe de 150.000,00 euros, para promover la ejecución del proyecto "Estrategia para acelerar diseñadores emergentes de Bizkaia como estrellas Michelin de la moda", durante 2025-2026, estableciendo las condiciones y compromisos asociados a su concesión.





2. Proiektuaren helburu nagusia da Bilbo/Bizkaia sendotzea gorabidean dagoen diseinua abiarazteko erreferente eta plataforma gisa, enpresa-proiektu berritzaileen bultzatzaile izatea sormen-industrien sektorean, tokiko eta nazioarteko talentua aurkitzea eta lurraldeko talentu sortzaile gazteen banku bat bultzatzea.

Bizkaia ekiteko lekurik onena izan dadin, Bizkaiko Foru Aldundiak beharrezko laguntza guztiak eskaintzen ditu eta ekintzaileek gizartearen garapen ekonomikoari ematen dioten balioa aitortzen du, talentua lehiakortasunerako eta ongizaterako funtsezko elementua dela eta enplegarritasun-maila handiak bermatzen dituela sinetsita baitago. Horregatik, bereziki beharrezkotzat jotzen dira enpresa-proiektu berriak, hala nola "Modaren Michelin izar gisa Bizkaian sortzen ari diren diseinatzaileak bizkortzeko estrategia", Bilbao International Art & Fashionek modaren industrian berritzeko erabiltzen duena, luxu berriaren sektoreko markak sendotuz, Bilbotik/Bizkaitik nazioarteko merkatuetara ireki ahal izateko eta gure Lurraldea diseinatzaile gehiagorengana erakarriko duen puntakoa izateko.

"Modaren Michelin izar gisa Bizkaian sortzen ari diren diseinatzaileak bizkortzeko estrategia" proiektua bultzada handia da moda-diseinatzaile gazteentzat, beren talentu eta prestakuntza bereziagatik hautatuak, nazioarteko ingurune digital, jasangarri eta berritzaile batean jardun dezaten. Proiektuak talentua atxikitzen, lurraldetik atera behar izan duten gazte sortzaileak berreskuratzen eta nazioarteko talentua erakartzen laguntzen du.

Azaldutako guztiak egiaztatzen du proiektu hau gauzatzeak dakarren interes publikoa, ekonomikoa eta soziala, eta justifikatzen du dirulaguntza zuzenean ematea eta deialdi publikorik ez erabiltzea planteatzen diren helburuak lortzeko.

2. El objetivo principal del proyecto consolidar Bilbao/Bizkaia como referente y plataforma de lanzamiento del diseño emergente, ser tractor de proyectos empresariales innovadores en el sector de las industrias creativas, descubrir talento local e internacional e impulsar un banco de jóvenes talentos creativos del Territorio.

Para que Bizkaia se convierta en el mejor lugar para emprender la Diputación Foral de Bizkaia ofrece todos los apoyos necesarios y reconoce el valor que las personas emprendedoras aportan al desarrollo económico de la sociedad desde el convencimiento de que el talento es un elemento clave para la competitividad y el bienestar que garantiza altos niveles de empleabilidad. Por ello, se consideran especialmente necesarios nuevos proyectos empresariales como "Estrategia para acelerar diseñadores emergentes de Bizkaia como estrellas Michelin de la moda" con el que Bilbao International Art & Fashion innova en la industria de la moda, consolidando marcas pertenecientes al sector del nuevo lujo para que puedan abrirse a mercados internacionales desde Bilbao/Bizkaia y ser punta de lanza que atraiga a nuestro Territorio a más diseñadores

El proyecto "Estrategia para acelerar diseñadores emergentes de Bizkaia como estrellas Michelin de la moda" supone un gran impulso para las y los jóvenes diseñadores de moda, seleccionadas por su especial talento y formación, para que actúen en un entorno internacional, digital, sostenible e innovador. El proyecto contribuye a retener el talento, a recuperar jóvenes creativos que hayan tenido que salir del territorio y a atraer talento internacional.

Todo lo expuesto acredita el interés público, económico y social que representa la ejecución de este proyecto y justifica la concesión de manera directa de la subvención y la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.





3. Dirulaguntza honen xedea ez da sexuagatiko edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreengatiko diskriminazioa eragiten duen jarduera.

4. Dirulaguntza honen xedea ez da tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan arau-haustetzat jotako jardunbideei aurre egiten dien, eragiten dien edo horiek onartzen dituen jarduera edo helburua betetzea.

Bigarrena.- Erakunde onuraduna

1. Bilbao International Art & Fashion, BIAAF (IFZ: G95791679) da dirulaguntza honen erakunde onuraduna, eta egunean ditu zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak.

2. Bilbao International Art & Fashion ez dago Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako egoeraren batean, eta Foru Arau horren 13. artikuluan ezarritako betebeharrak guztiak bete behar ditu.

3. Dirulaguntzaren erakunde onuraduna ez dago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako debekuetako baten eraginpean, ez eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan aurreikusitako egoeretako batean ere (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko

3. El objeto de esta subvención no constituye actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

4. El objeto de esta subvención no constituye actividad o cumplimiento de finalidad que atente, aliente o tolere prácticas calificadas como infracciones en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y no discriminación.

Segundo.- Entidad beneficiaria

1. Bilbao International Art & Fashion, BIAAF, con NIF G95791679, es la entidad beneficiaria de esta subvención y se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

2. Bilbao International Art & Fashion no se encuentra incurso en ninguna de las circunstancias establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y está sujeta al cumplimiento de la totalidad de las obligaciones establecidas en el artículo 13 de la citada Norma Foral.

- b) erakunde onuradunak jarduketara honi buruz aurkeztutako justifikazio guztiak jasotako laguntza publiko eta/edo pribatu guztien berdina edo handiagoa da
- c) helburura dekretuaren ezarritako terminoetan bete da eta bi alderdien gogobetetasuna lortu da.

8. Así, en la revisión para el cierre del expediente se comprobará que:

- a) se han ejecutado todas las actuaciones previstas en el presente acuerdo
- b) la totalidad de las justificaciones aportadas por la entidad beneficiaria en relación a esta actuación son iguales o superiores al conjunto de ayudas públicas y/o privadas percibidas
- c) el objeto se ha cumplido en los términos del decreto y a satisfacción de ambas partes.

Zazpigarrena.- Betebehar eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak

1. Jasotako dirulaguntza itzuli beharko da, eta dirulaguntza ordaintzen denetik itzuli behar dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, eta, hala badagokio, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da:

- a) dekretu honetan edo aplikatu beharreko araudian ezarritako betebehar edo baldintzaren bat betetzen ez denean,
- b) dirulaguntzen araubide juridikoari buruzko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo haren Erregelamendua onartzen duen 34/2010 Foru Dekretuan aurreikusitako kausaren bat dagoenean.

2. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira ondorio guztietarako.

3. Aplikatu beharreko berandutze-interesa 5/2005 Foru Arauaren 34.2 artikuluan aurreikusitakoa izango da.

Séptimo.- Consecuencias por incumplimiento de las obligaciones y compromisos

1. Procederá el reintegro de la subvención recibida y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en la que se acuerde la procedencia del reintegro y, en su caso, la pérdida del derecho al cobro de la subvención:

- a) cuando se incumpla alguna de las obligaciones o condiciones establecidas en este decreto o en la normativa de aplicación,
- b) cuando se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de régimen jurídico de subvenciones o en el Decreto Foral 34/2010, que aprueba su Reglamento.

2. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de Derecho Público a todos los efectos.

3. El interés de demora aplicable será el previsto en el artículo 34.2 de la Norma Foral 5/2005.





4. Itzultzeko prozedura 5/2005 Foru Arauaren II. tituluan eta 34/2010 Dekretuaren III. tituluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

5. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira, horiek mailakatzeko irizpideak honako hauek izango dira:

a) ebazpenean ezarritako epean dirulaguntzaren xede den jarduerarako gastuaren xedapena betetzen ez bada, emandako dirulaguntza guztiz galduko da,

b) dirulaguntzaren xede den jardueraren gastua ezarritako epean partzialki xedatzen bada, erabili ez den zatia dagokion dirulaguntza galduko da, betiere zati hori erabiltzeak ez badu eragozten diruz lagundutako jarduketaren xedea lortzea,

c) jarduketa gauzatzeko epeak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzuli beharko dira. Hala ere, jarduketak ez badira amaitu epe orokorrean aina haien zatiren bat epearen barruan egin bada, epe barruan egin ez den zatia dirulaguntzaren zenbatekora mugatuko da itzultzeko betebeharra, betiere zati bat gauzatze horrek jarduketaren helburua lortzea eragozten ez badu,

d) ekintzak edo gastuak gauzatzekoan edo justifikatzerakoan ez-betetze partzialik izanez gero, itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, proportzionaltasun-irizpidea hartuko da kontuan, eta dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak zenbateraino bete ez diren hartuko da kontuan,

4. El procedimiento de reintegro se tramitará con sujeción a lo dispuesto en el Título II de la Norma Foral 5/2005 y en el Título III del Decreto 34/2010.

5. Los criterios para la graduación de los incumplimientos de las condiciones impuestas con motivo del otorgamiento de la subvención serán los siguientes:

a) el incumplimiento de la disposición del gasto para la actuación para la que se otorgó la subvención, en el plazo establecido en la resolución, conllevará la pérdida total de la subvención concedida,

b) la disposición parcial del gasto de la actuación para que se otorgó la subvención en el plazo establecido, dará lugar a la pérdida de la subvención correspondiente a la parte no dispuesta, siempre que dicha disposición parcial no impida la consecución del objeto de la actuación subvencionada,

c) el incumplimiento de los plazos de ejecución de la actuación conllevará la obligación de reintegro de las cantidades percibidas junto con los intereses de demora. No obstante, cuando las actuaciones no hayan sido terminadas en el plazo general pero alguna parte de ellas haya sido realizada en plazo, la obligación de reintegro se limitará a la cuantía de la subvención de la parte no realizada en plazo, siempre que dicha ejecución parcial no impida la consecución del objetivo de la actuación,

d) la cantidad a reintegrar en caso de incumplimiento parcial en la ejecución o en la justificación de las acciones o gastos vendrá determinada, con arreglo al criterio de proporcionalidad, atendiendo a la entidad y grado de incumplimiento de las condiciones impuestas con motivo de la concesión de la subvención,





e) behar baino gehiagoko finantzazioa denean beste laguntza batzuk ere ematen direla-eta (maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 18.3. artikuluan ezarrita), bidezkoa izango da behar baino gehiago ordaindutakoa itzultzea, eta berandutze-interesa aplikatuko da,

f) hedapenari, gardentasunari, hizkuntza koofizialak erabiltzeari, genero-berdintasunari eta beste gizarte-politika batzuei buruzko betebeharrak betetzen ez badira, kobratzeko eskubidea galduko da edo emandako dirulaguntzaren % 10 itzuli beharko da, gehienez ere. Kasu zehatz bakoitzerako emandako dirulaguntzaren ehunekoa zehazteko orduan, adierazitako gehieneko mugaren barruan, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, honako irizpide hauen arabera: bete ez diren betebeharrak, horien garrantzia, onuradunaren jardura, bete nahi den ala ez, ez-betetzearen arrazoiak eta ez-betetze horiek helburuak lortzeko moduari nola eragiten dioten, jardura egitea, proiektua gauzatzea edo dirulaguntza ematea oinarritzen duen portaera hartzea,

g) oinarri hauetan ezarritako gainerako betebeharrak ez betetzeak emandako dirulaguntza osorik edo zati batean galtzea ekarriko du, oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta berariazko aurreikuspenik ezean, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera ezarriko da, ez-betetzeak lortu nahi den helbururako duen garrantzia eta interes publikoari eragindako kaltea kontuan hartuta.

e) en el supuesto de sobrefinanciación, por concurrencia con otras ayudas, contemplado en el artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, procederá el reintegro por la cantidad excedida, a la que se aplicará el correspondiente interés de demora,

f) el incumplimiento de las obligaciones de difusión, transparencia, uso de lenguas cooficiales, igualdad de género y otras políticas sociales conllevará la pérdida del derecho al cobro y/o el reintegro parcial de hasta un máximo del 10% de la subvención concedida. A la hora de determinar para cada caso concreto el porcentaje de la subvención concedida dentro del límite máximo indicado, se aplicará el principio de proporcionalidad atendiendo a los siguientes criterios: las obligaciones incumplidas, la entidad de las mismas, la actuación de la persona beneficiaria tendente o no a su cumplimiento, las causas del incumplimiento y cómo afectan dichos incumplimientos al modo en que se han de conseguir los objetivos, realizar la actividad, ejecutar el proyecto o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención,

g) el incumplimiento del resto de las obligaciones establecidas en las presentes bases conllevará la pérdida total o parcial de la subvención concedida en función de lo que dispongan las bases, y en ausencia de previsión expresa, la cantidad a reintegrar se fijará con arreglo al criterio de proporcionalidad atendiendo a la entidad y grado de relevancia del incumplimiento para la finalidad perseguida y el perjuicio para el interés público.





Zortzigarren-Foru Dekretua aldatzeko araubidea

1. Erakunde onuradunak emakida-ebazpenaren aldaketak eskatu ahal izango dizkio Bizkaiko Foru Aldundiari, baldin eta aldaketa horiek justifikazio-epea luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jardueran sartzen diren ekintzak aldatzea badakarte. Aldaketa horiek baimendu ahal izango dira ustekabeko egoeretan gertatzen direnean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideak urratzen ez badira.

2. Eskaera hori diruz lagundutako jarduera egiteko bi hilabete epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzeko beharrezko izapideak egin daitezten, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldaketarako eskaerari buruzko ebazpen berariaz eman ezean, aldaketa ukatu egin dela ulertuko da.

3. Dirulaguntza ematen duen organoak laguntza hori emateko ebazpena aldatu ahal izango du ofizioz, kasu honetan: laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu badira eta, aldaketa horren ondorioz, xede den interes publikoa lortzea eragozten edo arriskuan jartzen bada, eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

4. Era berean, Dirulaguntzei buruzko Foru Araudiaren 71. artikuluekin bat etorriz, dirulaguntzaren erakunde onuradunak justifikazioan adierazten duenean dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketak gertatu direla, eta aldaketa horiek ez dutela funtsean aldatzen dirulaguntzaren izaera edo helburuak, eta aldaketa horiek ebazpena aldatzea eragin zezaketela, dirulaguntza onartu aurreko administrazio-

Octavo.-Régimen de modificación del Decreto Foral

1. La entidad beneficiaria podrá solicitar a la Diputación Foral de Bizkaia modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación del plazo de justificación, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se perjudiquen derechos de terceras personas.

2. Dicha solicitud debe realizarse al menos dos meses antes de que finalice el plazo para ejecutar la actividad subvencionada, al objeto de realizar la tramitación necesaria para modificar la resolución de concesión, según el art. 32 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En caso de no producirse resolución expresa referente a dicha solicitud de modificación, se entenderá que dicha modificación no ha sido concedida.

3. El órgano concedente de la subvención podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la parte interesada, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la entidad beneficiaria.

4. Así mismo, de conformidad con el artículo 71 del Reglamento Foral de Subvenciones, cuando la entidad beneficiaria de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma, que no alteren esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención, que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de





baimenaren izapidea egin gabe, dirulaguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onartu ahal izango du, betiere onarpen horrek hirugarren pertsonen eskubideak kaltetzea ez badakar eta horrek ez badu erakunde onuraduna 5/2005 Foru Arauaren arabera dagozkion zehapenetatik salbuesten.

autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceras personas y sin que ello exima a la entidad beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral 5/2005.

Bederatzigarrena.- Azpikontratzeko baldintzak

1. Honako hau joko da azpikontrataziotzat entitate onuradunak hirugarren pertsona batekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xedeko jarduera oso-osorik edo zati bat egitea. Azpikontratazioaren kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da entitate onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

2. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren zati bat azpikontratatu ahal izango du. Azpikontratutako jarduera %50koa izan daiteke.

3. Inola ere ezingo dira azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitu arren jarduera horri balio erantsirik ez dakarkioten jarduerak.

4. Hirugarren pertsona batzuekin hitzartutako jardueraren kostuak dirulaguntzaren % 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 euro baino gehiago bada, orduan, kontratua idatziz formalizatuko honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) kontratua idatziz egin beharko da,

b) kontratua egin aurretik dirulaguntza eman duen erakundeak baimena eman beharko du.

Noveno.- Condiciones de subcontratación

1. Se entiende que la entidad beneficiaria subcontrata cuando concierta con terceras personas la ejecución total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención. Queda fuera de este concepto la contratación de aquellos gastos en que tenga que incurrir la entidad beneficiaria para la realización por sí misma de la actividad subvencionada.

2. La entidad beneficiaria podrá subcontratar parcialmente la actividad subvencionada. La actividad que la entidad beneficiaria subcontrate podrá alcanzar el 50%.

3. En ningún caso podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la actividad subvencionada, no aporten valor añadido al contenido de la misma.

4. Cuando la actividad concertada con terceras personas exceda del 20% del importe de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000 euros la subcontratación estará sometida a al cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) que el contrato se celebre por escrito,

b) que la celebración del mismo se autorice previamente por la entidad concedente de la subvención.





5. Erakunde onuradunak Dirulaguntzen Erregelamenduaren 53.2 artikuluan aipatzen diren eta harekin lotura duten pertsonak edo erakundeak azpikontratatu ahal izango ditu, baldin eta:

a) kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egingo da, eta, horretarako, onuradunak gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu aldez aurretik, salbu eta azpikontratutako jardueren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago horiek ematen dituen behar adina erakunderik, edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada,

b) eta, betiere, Bizkaiko Foru Aldundiaren aldez aurreko baimena lortzen bada.

6. Azpikontratatzeko aldez aurreko baimena behar den kasu guztietan, azpikontratazio-eskaerak zein baldintza nagusitan egingo den adierazi beharko du, eta Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak ebatziko du 45 egun balioduneko epean, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualean aurkezten denetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitzean berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, administrazio-isiltasunagatik ezetsizat joko da.

7. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak arduratuko dira azpikontratutako diruz lagundutako jarduera gauzatzean dirulaguntza arautzen duen araudiak ezartzen dituen mugak errespetatzeaz, diruz lagun daitezkeen izaera eta gastuei dagokienez.

8. Kontratatistak onuradunaren aurrean bakarrik egongo dira behartuta, eta hark bere gain hartuko du diruz lagundutako jarduera gauzatzeko erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean, 5/2005 Foru Arauaren 41. artikuluan aurreikusitako lankidetzeta-betebeharrari kalterik egin gabe. Halaber, genero-berdintasunaren arloan

5 La entidad beneficiaria podrá subcontratar con personas o entidades vinculadas con ella a las que se refiere el artículo 53.2 del Reglamento de Subvenciones siempre que:

a) la contratación se realice de acuerdo con las condiciones normales del mercado para lo que será preciso, como mínimo, tres ofertas de diferentes proveedores, salvo que por las especiales características de las actividades subcontratadas no exista en el mercado suficiente número de entidades que la presten, o salvo que el gasto lo hubiese realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención,

b) y siempre que se obtenga autorización previa de la Diputación Foral de Bizkaia.

6. En todos los casos en los que sea necesaria la autorización previa para subcontratar, la solicitud de subcontratación deberá indicar las principales condiciones en las que se va a realizar y será resuelta por la diputada foral de promoción económica en un plazo de 45 días hábiles desde su presentación en la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica, entendiéndose desestimada por silencio administrativo si no se notifica resolución expresa al término de dicho plazo.

7. Las entidades beneficiarias de la subvención serán las responsables de que en la ejecución de la actividad subvencionada subcontratada se respeten los límites que establece la normativa reguladora de la subvención en cuanto a la naturaleza y gastos subvencionables.

8. Las personas contratistas quedan obligadas sólo ante la entidad beneficiaria, que asumirá la total responsabilidad de la ejecución de la actividad subvencionada frente a la Administración, sin perjuicio del deber de colaboración previsto en el artículo 41 de la Norma Foral 5/2005. Así mismo, deberán respetar los principios generales y las





indarrean dagoen araudian aurreikusitako printzipio orokorrak eta betebeharrak errespetatu beharko dituzte.

obligaciones previstas en la normativa en vigor en materia de igualdad de género.

Hamargarrena.-Foru Dekretuak azkentzea

1. Foru Dekretu hau iraungi egingo da bere xedea osatzen duten jarduketak betetzen direnean.

2. Erakunde onuradunak ebazpen honen ondoriozko betebeharrak betetzen ez baditu, Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena suntsiarazteko ahalmena izango du.

3. Foru Dekretua iraungitzeak ez dakar berarekin erakunde onuradunari hitzarmenetik eratorritako betebeharrak iraungitzea.

Décimo.-Extinción del Decreto Foral

1. Este Decreto Foral se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto.

2. El incumplimiento de las obligaciones derivadas de esta resolución por parte de la entidad beneficiaria facultará a la Diputación Foral de Bizkaia para la resolución del mismo.

3. La extinción del Decreto Foral no implica la de las obligaciones de la entidad beneficiaria derivadas del mismo.

Hamaikagarrena.- Dirulaguntza borondatez itzultzea

1. Onuradunak berak Adminitrazioaren aurretiazko errekerimendurik gabe egindako da borondatezko itzulketa.

2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Adminitrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatuko ditu 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren behin betiko itzultketa benetan egin duen unera arte.

3. Onuradunak berak bere borondatez itzuli nahi badu dirulaguntza, ordainketa-gutuna erabili beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualean eskatu eta gero.

Undécimo.- Devolución de la subvención por propia iniciativa

1. Se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la entidad beneficiaria sin el previo requerimiento de la Administración.

2. Cuando se produzca la devolución voluntaria la Administración calculará los intereses de demora, de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005 y hasta el momento en que se produjo la devolución efectiva por parte de la entidad beneficiaria.

3. La devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria se realizará a través de la correspondiente carta de pago, que será remitida según el modelo oficial de la Diputación Foral de Bizkaia, una vez sea solicitada a través de la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica.





Hamabigarrena.- Datu pertsonalen babesa

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. artikulua eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 11. artikulua betez, tratamenduak honela egingo dira:

- Tratamendu-jarduera:

Ekonomia sustatzeko ekintzak kudeatzea eta kontrolatzea

- Tratamendu arduraduna eta kontaktua:

Ekintzailtza, Talentua eta Enpresen Lehiakortasuna bultzatzeko Zuzendaritza Nagusia

- Tratamenduaren helburua:

Honako helburu hauek dituzten ekonomia-sustapeneko ekintzak kudeatu eta kontrolatzea: ekintzailtza aurreratua sustatzea; startupak azeleratzea; Bizkaia ekintzailtza eta berrikuntza irekiko erreferente gisa kokatzea; finantzaketa-ekosistema erakargarria sendotzea; talentua erakarri eta sustatzea; emakumeek enpresan, zientzian eta teknologian duten eginkizuna ikusarazi eta sustatzea; berrikuntza, lehiakortasun jasangarria eta trantsizio digital nahiz berdea bultzatzea; eta bikaintasun-zentroen sarea babestea.

Duodécimo.- Protección de datos de carácter personal

En cumplimiento del artículo 13 del Reglamento 2016/679 (UE), relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, y del artículo 11 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales, los tratamientos se realizarán del siguiente modo:

- Actividad de tratamiento:

Gestión y control de las acciones de promoción económica

- Responsable del tratamiento:

Dirección General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial

- Finalidad del tratamiento:

Gestión y control de las acciones de promoción económica orientadas a fomentar el emprendimiento avanzado, acelerar las startups, posicionar Bizkaia como referente de emprendimiento e innovación abierta, consolidar un ecosistema de financiación atractivo, atraer e impulsar el talento, visibilizar y potenciar el papel de la mujer en la empresa, la ciencia y la tecnología, fomentar la innovación y competitividad sostenible así como su transición digital y verde y apoyar la red de centros de excelencia.





- Interesdunaren eskubideak:

Honako hauetarako eskubideak balia ditzake tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak atzitu, zuzendu, oposatu, ezabatu, tratamendua mugatu eta erabaki indibidual automatizatuen helburu ez izan. Horretarako, idazki bat bidal dezake Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari, bitarteko hauen bidez aurkeztuta:

BFaren egoitza elektronikoa:
<https://www.ebizkaia.eus>

Herritarrentzako BFaren aurrez aurreko arreta-bulegoak:
<https://web.bizkaia.eus/eu/erregistro-puntua>

39/2015 Legean ezarritako gainerako lekuak: LOPD.sustapena@bizkaia.eus

- Datuen babesari buruzko informazio gehiago:

www.bizkaia.eus/tje-ekonomiasustatzekoekintzak

- Derechos de la persona interesada:

Podrá ejercer ante el/la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, oposición, supresión, limitación del tratamiento y no ser objeto de decisiones individuales automatizadas, mediante escrito dirigido a la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos, que puede presentarse en:

Sede electrónica de la DFB:
<https://www.ebizkaia.eus>

Oficinas de Atención presencial de la DFB:
<https://web.bizkaia.eus/es/puntos-de-registro>

Resto de lugares previstos en la Ley 39/2015: LOPD.sustapena@bizkaia.eus

- Más información en protección de datos:

www.bizkaia.eus/rat-accionespromoeconomica

Hamahirugarrena.- Arau-haustek eta zehapenak

1. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea 5/2005 Foru Arauaren IV. Tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren IV. tituluan xedatzen dena izango da.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Euskal Administrazio Publikoen Zigorrezko Ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean aurreikusitakoa aplikatuko da, aurrekoen aurka ez doan guztian.

Decimotercero.- Infracciones y sanciones

1. El régimen de infracciones y sanciones será el dispuesto en el Título IV de la Norma Foral 5/2005 y en el Título IV del Decreto Foral 34/2010.

2. Será de aplicación lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público y en la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas, en lo que no se oponga a las anteriores.





Hamalaugarrena.- Helburu bera duten beste dirulaguntzak, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna eta bateraezintasuna

1. Dirulaguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturenak izan, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak izan, dirulaguntza edo laguntza horiei buruzko arauak ezarritakoa ezertan eragotzi gabe.

2. Hala ere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

3. Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikulua ezarritakoari jarraiki, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin da izan inola ere dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago.

4. Aurreko muga horietakoren bat gaindituz gero, emandako edo eman beharreko dirulaguntzari soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio.

5. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak Ekonomia Sustatzeko Sailari jakinarazi beharko dio, jakin bezain laster eta, nolahi ere, funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu direla, eta, hala badagokio, egindako itzulketa-gutunaren kopia ere aurkeztu beharko du. Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, itzulketa-prozedura hasteko.

Decimocuarto. - Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad

1. Esta subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas.

2. No obstante, no serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia.

3. Conforme al artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

4. En caso de superarse alguno de los límites anteriores la subvención a conceder o concedida se minorará en la cantidad que corresponda al exceso.

5. La entidad beneficiaria de la subvención deberá comunicar al Departamento de Promoción Económica, tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas, acompañando copia de la carta de reintegro que, en su caso, hubiera realizado. Todo ello a los efectos previsto en el artículo 18.3 y 18.4 de la Norma Foral 5/2005, de manera que pueda modificarse la resolución de la concesión de la subvención y, en su caso, iniciar el correspondiente procedimiento de reintegro.





6. Ekonomia Sustatzeko Saileko organo eskuduna gainerako alderdi finantzatzaileekin harremanetan jarri ahal izango da, baterako finantzaketarako akordio batera iristeko.

6. El órgano competente del Departamento de Promoción Económica podrá contactar con el resto de las partes financiadoras para llegar a un acuerdo de cofinanciación.

Hamabosgarrena. – Izaera eta araubide juridikoa

1. Dekretu honek administrazio izaera du, eta bertan xedaturikoaz gain, hauexek dira aplikagarriak: Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua eta dirulaguntzen 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Arautegia onetsi duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua zein aldatu baitzen Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru dekretuaren bidez, zeinen bitartez onartzen baita klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida eta gainerako arauzko xedapenak.

2. Aurreko arauetan aurreikusi ez den guztirako, hauexek aplikatu beharko dira: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa, Aurrekontuen Erregelamendu Orokorra onartzen duen abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua eta zuzenean edo analogiaz aplikatu beharreko administrazio edo substantibo zuzenbideko beste edozein arau.

3. Dekretu honen interpretazioa, ondoreak, ebazpena eta behar bezalako betetzea direla eta sor daitezkeen eztabaida guztiak Bizkaiko Foru Aldundiak ebatziko ditu administrazio bidean hark emandako ebazpenak berehala betearaztekoak izango direlarik.

4. Dekretu honen ondoriozko auziak, horien izaera juridiko administratiboa dela-eta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

Decimoquinto.- Naturaleza y régimen jurídico

1. Este Decreto tiene naturaleza administrativa y, se registrará, además de por lo dispuesto la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, modificado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero, por el que se aprueba la guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas y demás disposiciones reglamentarias.

2. Para todo lo no previsto en las anteriores normas, será de aplicación la Ley 40/2015, de régimen jurídico del Sector Público, el Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario, así como cualquier otra norma de derecho administrativo o sustantivo que directa o por analogía pueda resultar de aplicación.

3. Corresponderá a la Diputación Foral de Bizkaia resolver en vía administrativa cuantas controversias se susciten en relación con la interpretación, efectos, resolución y cumplimiento de este decreto cuyas resoluciones serán inmediatamente ejecutivas.

4. Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente decreto, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo, conforme lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.





Hamaseigarrena.- Emandako dirulaguntzen publizitatea

1. Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa beteko da. Horretarako, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen emandako dirulaguntza argitaratuko da artikuluko horretan xedatutakoaren arabera.

2. Halaber, dirulaguntza eman den urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen Ekonomia Sustatzeko Sailak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu emandako dirulaguntza, honako hauek adierazita: deialdia, aurrekontuko zer programari eta kredituri egozten zaizkion, onuradunaren izena edo sozietate izena eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia eta emandako zenbatekoa, dirulaguntzaren helburura edo helburuak. Urte askotarako dirulaguntzen kasuan, emandako zenbateko osoa eta urtekoen banaketa.

Hamazazpigarrena.- Organo eskudunak

Espedientea Ekonomia Sustatzeko Saileko Ekintzailera, Talentu eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusiko Enpresa Sustatzeko Zerbitzuak antolatu eta bideratuko du.

Hamazortzigarrena.- Gaikuntza

Ekonomia Sustatzeko Saileko titularrari ahalmenak ematea erabaki hau garatzeko, aplikatzeko eta exekutatze beharrezkotzat jotzen dituen xedapenak emateko, eta horien artean honako hauek: dirua itzultzeko espedienteak izapidetzea eta ebatzea, bai eta diru-laguntzarako baldintzak aldatzea, laguntzaren kopuruari dagokiona izan ezik.

Decimosexto.- Publicidad de las subvenciones concedidas

1. Se dará cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 20 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones mediante la publicación de la subvención concedida en la Base de Datos Nacional de Subvenciones según lo dispuesto en el citado artículo.

2. Así mismo, antes del fin del primer trimestre posterior al vencimiento del año natural de concesión de la subvención, el Departamento de Promoción Económica publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia la subvención concedida, el programa y crédito presupuestario al que se imputen, nombre o razón social de la persona beneficiaria con su número de identificación fiscal, cantidad concedida y finalidad o finalidades de la subvención. En caso de subvenciones plurianuales, importe total concedido y distribución de anualidades.

Decimoséptimo.- Órganos competentes

La ordenación e instrucción del expediente se llevará a cabo por el Servicio de Promoción Empresarial de la Dirección General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial del Departamento de Promoción Económica.

Decimoctavo.- Habilitación

Facultar a la persona titular del Departamento de Promoción Económica para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, aplicación y ejecución del presente decreto, incluyendo la tramitación y resolución de eventuales expedientes de reintegro, así como de modificación de las condiciones de la subvención, excepto en lo que se refiere a su cuantía máxima.





Hemeretzigarrena.- Jakinarazpenak

Ebazpen hau Bilbao International Art & Fashion erakundeari, Ekonomia Sustatzeko Sailari jakinaraztea eta haren berri ematea Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari.

Decimonoveno.- Notificaciones

Notificar la presente resolución a Bilbao International Art & Fashion, al Departamento de Promoción Económica y dar traslado del mismo al Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Enpresen Sustatzeko Zerbitzuko Burua. Jefa del Servicio de Promoción Empresarial. ISABEL SARRIONANDIA-IBARRA FERNÁNDEZ

Ekintzailletza, Talentu eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendari Nagusia. Director General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial. JOSEBA MARIEZKURRENA CUESTA

PROBIDENTZIA/PROVIDENCIA: Ontzat ematen dut aurreko proposamena, horrekin ados nago Ondorioz, aurkez bekio ahaldun nagusiari foru dekretua eman dezan/Presto mi visto bueno y conformidad a la propuesta antecedente y, en consecuencia, elévese a Decreto Foral de la Excm. Sra. Diputada General.

Ekonomia Sustatzeko Foru Diputatua. La Diputada foral de Promoción Económica. AINARA BASURKO URKIRI

Aurreko txostenak onartzen dira eta, ondorioz, horietan proposatzen denaren arabera ebazten da/ Se aceptan los anteriores informes y, en consecuencia, se resuelve de conformidad a lo que en ellos se propone

Alhaldun Nagusia. La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

